

KANT. OHITUREN METAFISIKA BATENTZAKO OINARRIZTAPENA

Oinarriztapena vs Nikomakorentzako etika: Oinarriztapenean gizaki ona ez da zoriontsua, baizik eta zoriontsu izateko merezimendua egiten dituen. Nikomakorentzako etikan, aldiz, pertsona ona zoriontsua da.

Oinarriztapenaren helburua:

-Kanten praktiko guztien funtsa/oinarria ematea. Filosofia sistematikoa da, hau da, lan bat ulertzeko besteekin lotu behar da.

-Moraltasunaren printzipio gorena, inperatibo kategorikoa, argitu eta argudiatu nahi du. Guk gure ontasunaren printzipio gorena autonomoki bilatu behar dugu, ezin digu beste batek esan zein den.

-Inperatibo kategorikoa (def.): natura arrazional oren duintasuna errespetatzea.

-Gizakiok arrazoimen praktikoa dugu, hau da, borondate aske edo askatasuna (moralitatearen oinarri gorena); hau autodeterminatuta dago, eta gaitasun honen bidez, giza duintasuna lortzen da. Giza duintasuna absolutua da eta, horrenbestez, ez da neurgarria ezta trukagarria.

Ohituren metafisika: A. zuzenbidearen doktrina eta B. bertutearen doktrina. Bi hauek moralitatearen lehen printzipio/ lege/ arau; eta oinarriztapenak zein inperatibo kategoriak bi hauei ematen diete oinarri.

A. Zuzenbidearen doktrina. Betebeharrak nor bere buruarekiko edo besteekiko, hauek estatuak arautu ditzake; kanpo hertsadurarekin edo ikusgarriak diren dispozizioekin lotuta dago.

B. Bertutearen doktrina. Nor bere buruarekiko edo besteekiko ditugun barne betebeharrak, hau da, aztura edo dispozizioak. Estatuak ezin du arautu, ezin da kanpo hertsadurarik egon.

Ohitura: mor moris= ethos. Ohitura=morala. Kanten arabera bi zentzu:

-Ohitura oro har: egunero egiten duguna. Betebehar multzo osoa: a) kanpo hertsadura eta b) barne aztura hartzen ditu kontutan.

-Ohitura zentzu hertsian: morala zuzenbideko doktrinatik bereizita, soilik barne azturari erreferentzia eginez.

Inperatibo kategorikoak (apriorizkoa) arrazoimen praktikoa bultzatuko du. Bi hauek dira inperatibo kategorikoaren baldintzak:

-Unibertsaltasuna eta beharrezkotasuna. Bere aplikazioaren esparrua unibertsala delako duintasunez tratatu behar da gizaki oro. Izaki arrazional orok du lege horren arabera jokatzeko betebeharra edo ardura (eta inperatibo kategorikoak agintzen duena egin behar da). Behaketaren bidezko ikerketak, hau da, induzioaren bidezko unibertsaltasuna, ez da erabateko unibertsaltasuna.

Autonomia: Filosofia praktikoa oinarria ezin da heteronomoa izan, hau da, ezin da esperientziaren menpeko, errebelazioaren menpeko...egon. Askatasuna izatea bi eratan uler daiteke: kanpo hertsadurarik eza (a. negatiboa) eta autonomia izatea (a. positiboa). Autonomia= gure ekintzaren oinarri eta kausa gu geu.

Zoriontasuna bilatzen dugu guztiok helburua baita. Modu oso bestelakoetan ulertzen da, beraz, ez dugu unibertsaltasuna ez beharrezkotasuna. Zer da, ba, zoriontasuna? Aiherrak edo desira guztien asebetetzea. Izaki guztiek beraien aiherrak asebeste nahi dituzte eta, horrela, zoriontasuna lortu. Zerk bultzatzen du gizakia aiherrak horien arabera jokatzera? Lege naturalak. Lege naturalek fenomenoak kausatzen dituzte induzioaren ondorioz (hau, bigarren mailako unibertsaltasuna da, ez erabatekoa).

Moraltasunaren izate baldintza: lege naturaletatik at dagoen esparrua. Ez badago esparru bat lege natural eta fenomenoetatik at, ez dago moralitatearik. Borondate hutsik gabe moralitateak ez du zentzurik.

Borondate enpirikoa eta askea.

-Batetik, natura borondate enpirikoa da eta ukaezina da naturaren parte garena.

-Bestetik, moralitatea borondate askea. Moralitateak zentzua du baldin eta posible bada gizakiari buruz hitz egitea natura hutsa ez den heinean, hots, determinatuta ez dagoen heinean. Kausa-efektu segidatik at koka bagaitezke existitzen da moralitatea. Ekintza moralaren kausa ez da izango fenomeno bat, beste kausalitate forma bat proposatzen du, hau da, askatasun edo borondate transzendentala: naturatik kanpo dagoen askatasuna. Kausarik gabeko kausa noumenoa izango litzateke, askea, bat-batekoa eta aurrekaririk gabea izango litzateke. Noumenorik gabe ez dago fenomenorik; eta noumenoaren inguruan ezin dugu ezagutza zientifikoa izan.

Obraren sarrera:

1. Testuaren helburu nagusia. Moralitatearen printzipio nagusia argitzea helburua. Inperatibo kategorikoa, arrazoimen hutsa duena oinarri: apriorizkoa da eta enpirikotasunetik at kokatzen da. Halere, kontu enpirikoak ere aintzat hartuko dira, izan ere natura eta moralitatearen artean kokatzen gara; autoreak ez du ahaztuko gure natura enpirikoa eta, hortaz, aiherrak fisikoak ditugula aintzatetsiko du. Kausalitate forma baten berri eman nahi du, horretarako printzipioak zehaztuz. Autonomiarako gaitasunaren alde egiten du.
2. Inperatibo kategoriko bat aurkitzea posible dela justifikatzen saiatzen da. Inperatibo kategorikoa ezin da esperientzian funtsatu. Borondate ona eta betebeharraren inguruko analisia egiten du.
3. Egitura

Fisika eta borondate enpirikoa; etika eta borondate hutsa.

-Fisikak natura eta lege naturalak, hau da, fenomenoak aztertzen ditu. (Fenomenoen atzean dauden elementu halabeharrezkoak aztertzen ditu, apriorizkoa dena.) Aiherrak mugitzen gaituzte motibazio iturri baitira, eta denok ditugu, alegia, ez dugu aukeratzen. Denok bilatzen dugu aiherrak guztien asebetetzea, hau da, zoriontasuna. Ez da erabakitzen dugun zerbait, baldintzatutako zerbait da: kausa (fenomenoa) → efektua (fenomenoa). Borondate enpirikoa kokatzen da bertan eta ekintzarako printzipioa da. Borondate hutsak ere determina dezake borondate enpirikoa, halere borondate hutsa elementu noumenikoa izanik ezin du aztertu borondate enpirikoa, hots, fenomenoak. Aiherrak bidez, hau da, enpirikoa den naturaren bidez determinaturik gaudenean, ez dago moralik ezta borondaterik ere ez; izan ere moraltasunaren printzipietako bat autonomiarako gaitasuna da. Heteronomoki jokatzeko, arrotza den objektu batek determinatzen du gure borondate edo egitekoa. Gizaki enpirikoa natura fenomenikoan kokatzen da; arrotza dago. Bertan ez gara mugitzen natura unibertsal baten,

soilik indukzioaren bidezko unibertsaltasun bat izango litzateke, ez erabatekoa. Zoriontasuna bakoitzak modu batean ulertuko luke.

Mundu fenomenikoan dauden ongiak erlatiboak dira. Mundu fenomenikoko errealitate guztiek balio bat dute, hau da, balio neurgarria edo alderagarria, beste ongi erlatibo batengatik ordezkatu dezakegu ongi erlatibo bat; Kantek honi prezioa deritza.

Objektu enpirikoek determina dezakete gure borondatea. Borondatea heteronomoki determinatzeko moduetako bat: plazeraren bidez. Halere, atsegin iturri diren objektu batzuk ez dute ematen plazera euren izaera enpirikoagatik, hauek plazer arrazionalak izan daitezke, baina halere gure buruari legea ematen dion elementua arrotza izango litzateke. Honen kausa gure natura enpirikoa da, hau guk ez dugu arautzen, ostera, guri ematen dizkigu arauak. Interes orokorraren alde jokatzearan (interes partikularraren alde jokatzeara baino nobleagoa) gehiengoaren plazera bilatzean datza.

Heteronomia, borondatearen determinazio heteronomoa, izan daiteke:

- Sentikorra
- Arrazionala (adb.: boligrafoa lapurtzean jabeari despistatuz arrazoimena erabiltzera garamatza.

Heteronomoki joka daiteke arrazoimena errepresentatuz:

- Ontologikoa den bikaintasunaren ideia baten arabera jokatzeara. Bikaintasunaren ideia perfektua arrazoimenaren bidez lor dezakegu. Mundu enpirikoaren objektua dugu oinarrian eta gu mundu horren pean gaude. Ideia bikaina nahiz eta arrazoimenak sortua den heteronomoki determinatuta dago.
- Teologikoa den bikaintasunaren ideia baten arabera jokatzeara. Jainkoaren ideia sortu eta bere borondatearen arabera joka beharko genukeela dio ideia honek

-Etikak askatasuna, borondate askea, aztertzen du. Borondate hutsa kokatzen da bertan, hau da, borondate askea edo borondate transzendentala. Nolakoa da borondate hau? Formala, metafisikoa eta apriorizkoa. Borondate hutsaren pean baldintzatu gabeko izakiak gara eta legea ematen diogu gure buruari. Autonomia, hau da, askatasunaren bidez, ekintza ez da determinismoaren pean kokatzen. Autonomiarako gaitasuna da arrazoimen praktiko hutsaren fakultatea. Autonomoki jokatzearan guk gure burua determinatzen dugu, guk ematen diogu legea edo printzipioa gure buruari. Arrazoimen praktiko hutsaren kausalitate forma bat-batekoa da (autonomoa, alegia) eta, horrenbestez, ez du aurreko kausarik.

Berezko helburuak, euren buruari jokatzeko printzipioa ematen diotenak, ezin dira beste helburu batzuegatik ordezkatu, euren balioa ez baita erlatiboa. Berezko helburuek helburu propioa dute, Kantek honi duintasuna deritza.

Bikaintasunaren ideia: gure fakultate imperfektuen bidez hel gaitzke bikaintasunera. Arrazoimenak du gaitasuna objektuak modu bikain batean errepresentatzeko.

Ondorioa: aiherrak badira, gure natura hori baita, eta, noski, kontutan eduki behar dira; hala ere, badago bizitzeko beste modu bat non askeak garen.

Metafisika. Kantek metafisikoa bi zentzutan erabiltzen du:

1. Apriori bidez lortzen eta ezagutzen den zerbaiti egiten dio erreferentzia.
2. Bere ikerketa objektua noumenikoa den errealtate bat (borondate askea). Materiala da, baina baita metafisikoa ere.

Obraren hitzaurrea.

-Hiru atal nagusi ditu obrak. 1 eta 2. Ataletan analisisa egiten du; eta 3. Atalean sintesia.

-Analisisa borondate ona eta betebeharraren bidez egiten du. Analisi hori egiterakoan, borondate hutsa, hau da, arrazoimen praktiko hutsa, nahitaezko izate baldintza da borondate ona eta betebeharrerako; borondate onak eta betebeharrak borondate hutsa auresuposatzen dute.

-Apriorizko lege batek mugitzen gaitu betebeharrez jokatzen dugunean, eta ez aiharren ondorioz. Betebeharrez jokatzeak suposatzen du kanpo kausarik gabe jokatzea.

-Bigarren atalean filosofia moral herrikoia aurkezten du, filosofia moraleko korronte desberdinei egiten diena erreferentzia. Empirikotasunean errotzen den heinean baztertu behar da.

-Hirugarren atalean: moralitatea existitzen da baldin eta kausalitatearen bigarren forma bat existitzen bada, hau da, borondate hutsa existitzen bada. Kausarik gabeko kausa izango litzateke (noumenoa), askea, bat-batekoa eta aurrekaririk gabea izango litzateke. Hirugarren atala sintetikoa da. Borondate hutsa suposatu behar da moralitateari dagokionez; Kantek honen existentzia demostratzea nahi du.

Judizio analitikoa eta sintetikoa.

-Analitikoa: beti beharrezkoa da eta nahitaezko ezaugarriak ematen ditu. Adibidez, hirukiak hiru alde ditu. Bertan kokatuko litzateke ere borondate onak borondate hutsa suposatzen duela.

-Sintetikoa: efektu orok kausa bat dauka.

2. atala.

Ohiko ezagutza morala ontzat ematen du. Ezagutza moral ohikoak intuizio forma bati erantzuten dio, eta ez, ordea, esperientziari. Gizakiongan badago intuizio bat zeinaren bidez jakin dezakegun gizakiek joka dezaketela aiharren bidez jokatzen dugun modutik desberdina den modu batean.

Ezagutza moralaren bi kontzeptuen analisisa egiten du, eta lau ondorio ateratzen ditu:

1. Borondate on baten ontasuna motibazioan datza, ez bere arrakasta faktikoan; hau da, ekintza bat ez da ona edo txarra ekintzaren helburu edo ondorioei erreparatuz, baizik eta motibazioari erreparatuz, hots, ekintza eragiten duenari erreparatuz. Aiherek eragindako ekintzak morroiarenak lirateke, aldiz, arrazoimen praktiko hutsaren kausalitateak eraginda jokatuz, motibazioaren iturriak ekintzaren ontasuna zehazten duela esan dezakegu kasu honetan.
2. Borondate onaren motibazioa betebeharra da.
3. Betebeharra da ekintza baten beharrezkotasuna legeari errespetua zor zaiolako. Inperatibo kategorikoa da arrazoimen praktiko hutsaren legea.
4. Errespetua merezi duen lege praktikoa inperatibo kategorikoa dugu.

Borondate ona.

Borondate ona ona da baldintzarik gabe edo mugagabeki, hau da, erlatiboki ona denarekiko kontrajarria. Erlatiboki ona izateak suposatuko luke norbere zoriontasun propiorako ona izatea, eta ez oro har. Zerbait ona izateko ona izan behar da bere horretan, eta ez erlatiboki.

Borondate hutsa.

Mugagabeki ona den gauza bakarra. Bere ondorioz egindako ekintzak ez dira mugagabeki onak, bere nahimenean soilik da mugagabeki ona. Kanpo hertsaduratik aske ekiteko printzipioa da eta norberak norbere buruari ematea printzipioa. Kanpo hertsaduratik libre izatea askatasun negatiboa litzateke eta norbere buruari legea ematea askatasun positiboa. Askatasun positiboa autonomia izango litzateke; eta askatasun positiboa askatasun negatiboaren etengabeko garapena da.

Gaitasuna eta berezko funtzioa.

Existitzen den gauza orok du gaitasun bat zerbaiti begira; eta gaitasun horrek funtzio bati erantzuten dio.

-Aiharren berezko funtzioa gu zoriontasunera eramatea da. Zoriontsu izateko aiherrak erabiltzea eraginkorra da.

-Arrazoimenari dagokionez, berezko funtzioa etikari dagozkion berezko funtzioak zehaztean datza. Arrazoimen hutsaren helburua borondate bat motibatzea, hau da, borondatea ona egitea da; horregatik borondate ona da helburua, gainera, helburu honi esker esan dezakegu askeak garela.

Borondatea. Onak izateko gaitasuna, gure buruari legea emateko gaitasuna.

Borondatea bi eratara determina daiteke, izan ere, ekintzak zio desberdinengatik egiten ditugu.

-Aiharren, desiraren bidez; arrazoimen instrumentala litzatekeena. Guk naturalki bilatzen dugu desirak asetzea eta mina saihestea. Horrela, lege naturalei jarraituz eta, hartara, heteronomoki, zoriontasuna den ongia erdietsi dezakegu. Gu natura gara eta ezin diogu uko egin, naturan kokatzen diren izaki guztiek hau bilatzen dute. Modu honetan ezingo genuke moralitatearen inguruan hitz egin. Arrazoimen instrumentala organismo fisikoan kokatzen da, enpirikoa da. Mundu fenomenikoan bilatzen dugun oro baldintzatuta dago, bertan ez daude berezko helburuak baizik eta erlatiboak, enpirikotasunak baldintzatzen gaituelako. Baldintzapen horretatik aske dagoen bakarra lege naturaletatik at dagoena da; absolutuki ona izateko bere ekintzan edo nahimenean ezin da baldintzatuta egon, autonomia izan behar da.

-Posible da beste modu batean jokatzeko, betebeharraren bidez, hau da, arrazoimen hutsak bere buruari ematen dion legearen bidez, era autonomoan jokatzeko, borondateak bere buruari legea ematean, borondate ona den ongia erdietsi dezakegu. Naturaren legeek ez dute gure borondatearen printzipioa determinatzen. Borondate ona gizaki onaren motibazioa da. Gizaki onak borondate ona du eta nahimen edo guramenarekin lotuta dago. Berezko helburua, hots, ongi absolutua mugagabekoa da eta, beraz, ez dago lege naturalengandik baldintzatuta.

Ondorioa: borondate ona zoriontasunaren gaitetik gailentzen da. Arrazoia? Sapere aude, ausart zaitez zure kabuz pentsatzera. Zoriontasuna ez dugu bilatzen guk hautatzen dugulako, aiharren araberrako da. Borondate ona helbururik garrantzitsuen da. Are hobeto, borondate ona edukita zoriontsu izatea.

Borondate onaren printzipioa: betebeharra. Betebeharra printzipio bat-bateko baten bitartez gure ekintza determinatzeko errespetua da.

Lau betebeharrak forma desberdinak daude:

Betebeharrak perfektuak: zerbaitekin egin daiteke edo ez modu absolutuan, etengabeko betebeharrak dira

-Norberarekiko betebeharrak perfektuak. Buruaz beste ez egitea. Berekoikeria litzateke honen oinarrian egongo litzatekeena, hau da, plazer handiena pairatu nahi izatea edo, ostera, oinazeak ekiditea. Atzean ez litzateke egongo maximo forma bat zeina denetzako ona den; eta gainera, kontraesanera iritsiko ginateke, izan ere, bizitzaren printzipioa biziraupena izanda, ekintzak bere printzipioaren aurka egingo luke.

-Hurkoarekiko betebeharrak perfektuak. Ezin diogu beste bati beteko ez dugun zerbaitekin buruz zin egin, hots, ezin dugu gezurrez zin egin; izan ere, beti horrela izango balitz zinaren zentzua bera suntsituko litzateke. Kasu honetan ere, betebeharrari uko eginez, helburua ez litzateke izango lege unibertsal bihurtzea, baizik eta norbera salbuespen izatea.

Betebeharrak inperfektuak: meritu kontuez ari gara, beraz, beti egin beharreko edo ez egin beharreko zerbaitekin zehazteaz gain, gradu kontuak abalik uzten ditu (ez zaigu esaten noraino eta nola).

-Norberarekiko betebeharrak inperfektuak. Norbere dohainak edo talentuak garatu behar dira. Hori egin ezean, eta bizitza gozamenera bideratuz, ezingo litzateke lege unibertsal bihurtu.

-Hurkoarekiko betebeharrak inperfektuak. Besteak, hurkoak, egoera latzak bizitzean ez dugu axolagabeki jokatu; hurkoari lagundu behar diogu zeren eta guk horrelako egoera bat bizitzean nahi genuke hurkoak guri laguntzea. Hala ere, helburua ez da interes pertsonal (ezta orokorra), baizik eta unibertsalizazioa.

Betebeharrak joko genezake aiharren aurka jo gabe, izan ere, betebeharrak joko genezake lege forma baten arabera: betebeharraren arabera joko genezake edo betebeharraren mesedetan.

Moraltasunaren printzipioak.

1. Borondate onak betebeharrak mugituta jokatzen du, eta ez aiharrek mugituta.
2. Betebeharrak mugituta balio morala ez datorkio ekintza den helburutik, baizik eta maximo edo arautik. Jarraitu dugun arauak egiten du ekintza bat ona, ez aldiz helburuak. Maximo (maximo=printzipio=arau) ekintzaren printzipio subjektibo edo indibiduala da. Maximo subjektiboa: "ez esan gezurrik", "gose zarenan jan" bi aukera daude honen aurrean, ekin betebeharrak edo jarraitu plazera. Maximo modu orokorrean ulertuta: guramen bat du atzean. Nahimenaren edo guramenaren kausa betebeharrak jokatzea nahi dugula (formalki determinatuta). Ekintza bat ona da: berez ona denean eta ez bestelako helburu bati begira, hau da, ez denean ongi edo helburu erlatibo bat. Ontasuna: ez dator efektutik, baizik eta motibaziotik.

Ez da jokatu behar interes orokorraren arabera, baizik eta betebeharraren arabera. Enpirikoarekiko bestelakoa den printzipioak unibertsala izan behar du. Indukzioaren bidezko unibertsaltasuna ez da erabatekoa. Betebeharraren kontzeptuak unibertsaltasunaren kontzeptua eskatzen du edozein egoeratan eta gizaki arrazional ororentzako balekoa izango dena. Betebeharra ekintza baten beharrezkotasunak legearekiko sortutako errespetua da; eta lege

horrek emango digu irizpidea pertsona ona zein den zehazteko, irizpide hauek inperatibo kategorikoaren formulazio desberdinetan ageri dira.

3. Beteberraren da arrazoimen praktiko hutsaren (APH) legearekiko errespetuak bultzatutako ekintza baten beharrezkotasuna. Ekintza bat beharrezkoa da baldin eta errespetua sentitzen badugu lege praktikoarekiko.
4. Moraltasuna dago borondatea askea delako.

Arrazoimen praktiko hutsaren/ borondate onaren printzipio edo legea.

Unibertsala eta beharrezkoa da legeri diogun errespetua (nik nire buruari jarri diodan lege horrekiko sentimendu bat daukat). APH-ren legearekiko motibazioa subjektiboa da, arauarekiko errespetua, ostera, objektiboa. APH-ren legea formala da.

-Lege objektiboa da eta unibertsala da zentzu hertsi eta apriorizkoan. Lege praktikoak ez du suposatzen interes orokorraren (edo propioaren) arabera motibatzea gure ekintza, baizik eta betebeharraren arabera. Izaki arrazional ororentzako beharrezkoa den (betebeharrari errespetua) maxima edo legea izan beharko litzateke. Betebeharraren kontzeptua arrazoimenaren berezko printzipioa da eta komunitate desberdinetan erabiltzen da.

-Printzipio bat-batekoa dena bilatzen dugu, baldintzarik gabea; eta naturaren baldintzetatik at dagoena. Printzipio objektiboa eta izaki arrazional guztientzako balekoa izan behar da.

2.atala.

Borondate hutsaren printzipio gorena: inperatibo kategorikoa.

Moraltasunaren atzean dagoen legea da inperatibo kategorikoa. Bat eta bakarra da nahiz eta formulazio desberdinak dituen (3 zehazki), aplikazio desberdinak dituzte.

Inperatibo kategorikoa autonomia edo autodeterminazioa da, hau da, izaki arrazional batek bere buruari ematen dio lege praktiko eta objektiboa. Arrazoimen praktikoaren legea ezin da enpirikoki funtsatu, lege edo printzipio apriorizkoa baita.

Gure buruari askotan gezurra esaten diogu (autoengainua) betebeherra betetzen dugula esanez, gure burua zurriz saiitzen gara arrazoimen instrumentalaren bidez.

Moraltasunaren gakoa ez da berez dena, hots, ez da izana; baizik eta behar izana.

Esperientziatik ezin ditugu beharrezkoak eta izaki arrazional ororentzako onak diren ekintzak ondorioztatu. Ezta ere ezin dugu betebeharraren kontzeptua betebeharratik ondorioztatu, horrek, hain zuzen, heteronomia suposatuko lukeelako. Moraltasuna ezin da iritzi herrikoan oinarritu; filosofia moral herrikoia filosofia moral enpirikoa da eta ez du apriorizko funtsarik. Kantentzat, kontrara, betebeharrak apriorizkoa eta unibertsala izatea suposatzen du; horregatik, filosofia moral herrikoia elementu enpirikoak arbuigarriak deritze. Ezagutza moral arrazional ohikoa ezagutza praktiko da, eta APH-ren oinarrian dago, eta ezagutza moral arrazional ohikoa justifikatzen du; gainera, bertatik analisisa egin nahi du, bestetik, filosofia moral herrikoia baztertuz.

Inperatibo kategorikoak zentzua du soilik baldin eta arrazoimen hutsa bezalako errealitatea existitzen bada, arrazoimen hutsak modu bat-batekoan sortzen ditu inperatibo kategorikoaren aginduak. Beste norabidean ere, borondate hutsa, inperatibo kategorikoaren izate baldintza da.

Inperatibo kategorikoa da natura arrazional guztien printzipio unibertsal eta beharrezkoa. Ekintza oro dago inperatibo kategorikoaren legearen menpe. Lege hori ez da lege arrotza, baizik eta norik bere buruari ematen diogun legea. Lege honek natura arrazionala eta autonomia suposatzen du.

(Borondatea: norbere buruari legea emateko gaitasuna, onak izateko gaitasuna potentzialtasuna).

Borondate huts hutseginkorra eta hutsezina.

-Borondate huts hutseginkorra (=arrazoimen praktiko hutsa): gizakiei dagokie (hau da, autonomiarako gaitasuna duen kolektiboari, autonomiak egiten du gizakia berezko helburu) eta onak izateko gaitasunean datza (potenzialantasunarekin lotzen da zentzu honetan). Gaitasuna du autonomoki determinatzeko, baina determina daiteke baita ere printzipio enpiriko baten bidez heteronomoki, honen emaitza borondate txarra izanik; horregatik, autonomoki joka dezan agindu behar diogu beharrezkotasuna objektiboa eta apriorizkoa izatea. Inperatibo kategorikoaren bidez, hau da, APH-ren bidez burutzen dugu agindua, hau da, nola jokatu behar duen; lege praktikoa da zeinak ekintza bat ontzat eta beharrezkotzat errepresentatzen duen. Autonomoki determinatuta jokatzaren ondorioa borondate ona izango litzateke. Borondate ona dugu borondate hutsa dagoelako atzean, hau da, borondate ona borondate hutsaren aktualizazio jakin bat da, izan ere, beste aktualizazio baten bidez, borondate txarra izan liteke emaitza, hain zuzen heteronomoki determinatuta jokatuz gero.

-Borondate huts hutsezina: Jainkoari dagokio, borondate zaindua da. Autonomoki determinatzen da. Ez diogu agindu behar zer egin, ez baitago beste motibazio posibleirik; horrenbestez, aukera bakarrak erabakia aukera bakarrera bideratzen duenez, ez da inperatiboa edo agindua behar ez baitago hutsegiterako kabidarik.

Inperatibo kategorikoa eta hipotetikoa.

-Inperatibo kategorikoa: egin x , joka ezazu x modu jakin batean, baldin eta ontzat hartzen duzun hori baldintzagabeki ona den. Baldintza gabe agintzea, nahitaez agintzea litzateke, hau da, egin x beti, edozein delarik egoera ere, x hori ona bada edozein egoeratan. Inperatibo kategorikoa irizpide bat da zehatzeko zer den mugagabeki ona. Beraz, i . kategorikoari buruz bagabiltza, testuingurua aztertzeak zentzua galduko luke.

-Inperatibo hipotetiko: egin x , baldin eta y -ren baldintzapean. Esperientziaren arabera, hots, enpirikoki determinatua; eta baldintzatua den aldetik erlatiboa. Inperatibo hipotetikoaren helburua mugatua da, erlatiboa; eta, beraz, bertara bultzatzen gaituzten maximak ez dira unibertsalak.

- I. hipotetiko. Problematikoa: helburu posible batentzako da, trebetasunaren arau.
- I. hipotetiko. Asertorikoa: helburu erreal batentzako da. Egin x , baldin eta zoriontsu izatea nahi baldin baduzu. Zentzu batean unibertsala da. Zuhurtziaren aholkua jasotzen da, zoriontasuna erdiesteko tresna, arrazoimen forma bat da zeinak ez duen askatasunik ematen: arrazoimen instrumentala.

Ondorioak: legea lege izateko, zer eskatzen diogu?

-Derrigorrezkotasuna

-Unibertsaltasuna modu apriori eta formalean

Beraz, inperatibo hipotetikoak ez da legea baizik eta: abilezia araua eta zuhurtziaren aholkua. Analitikoak da (ez digu informazioa gehitzen) eta, beraz, ez sintetikoak; eta aposteriori. Aldiz, inperatibo kategorikoak legea da; ezin da analitikoak izan, sintetikoak dira eta apriori.

Moraltasunaren inperatiboa, soilik, kategorikoak da. Horrenbestez, inperatibo hipotetikoak ez da moraltasunaren araua. Inperatibo hipotetikoak ongi erlatiboak dira, ez unibertsal edo absolutuak. Moraltasun inperatiboa (kategorikoak) soilik da legea.

Inperatibo kategorikoaren formalizazio desberdinak.

Inperatibo kategorikoak bat eta bakarra da formulazio desberdinak izan arren; formulazio bakoitzak lege moralaren alderdi bat nabarmendu nahi du.

1. formulazioa. “Joka ezazu zure maxima lege unibertsal izatea nahi izango bazenu bezala”. Lehen formulazio honek unibertsaltasuna eskatzen du eta, kontutan eduki behar den unibertsalizazioa modu hertsian apriorizkoak izango da. Gure ekintza bat ona izateko gure ekintzaren maxima lege unibertsal izatea nahi izan beharko genuke Eginbeharrak arrazionalak diren gizaki ororentzako dira, baldintzak edozein izanda ere. Kanten sisteman moralki jokatzeko ekintzaren maxima unibertsalizagarria izan behar da, maxima izaki arrazional guztiek onartzen dute egoera edozein izanda ere. Moralitatea existituko balitz, ezinbestean, lege bat existituko litzateke, zeinak aginduko ligukeen zerbaitekin egin edo ez egitea izaki arrazional guztioi eta egoera edozein izanda ere. Unibertsalizagarria den maxima baten pean jokatzeko hau suposatuko luke: zerbaitekin egin, soilik, gure ekintzaren maxima helburu moduan unibertsalizagarria bada; horrenbestez, ongi absolutua da helburua. Ekintza izaki arrazional guztiek aintzatetsiko duten horretara bideratuta egongo da.

Zerk egiten du maxima bat unibertsala? Baldintza bati lotuta dagoen maxima bat erlatiboa izango da. Unibertsala izateak suposatzen du garai guztientzako, pertsona guztientzako eta baldintza guztientzako balekoa izatea. Berezko helburua, hau da, baldintzatuta ez dagoena bilatu behar dugu; zein da baldintzagabeko ongi bat?

-Fenomenoa den orok kausa bat du. Fenomenikoa den ezer ezin da bere horretan guztiz ona izan, baldintzatuta baitago, hain zuzen, lege moralek baldintzatuta.

-Natura arrazionala, aldiz, berezko helburua da, izan ere, autonomia da. Norbera da norbere ekintza eta izaeraren kausa. Berezko helburua mugagabeki ona da, baldintzarik gabekoa eta autoaskea den errealitatea da. Horrenbestez, naturala arrazional hutsa da baldintzagabeko ongia, hau da, berezko helburua.

2. formulazioa. “Joka ezazu soilik modu horretan zeinetan gizakiartasuna erabiltzen duzun bai zurekiko bai besteekiko aldi berean helburu gisa eta inoiz ez soilik bitarteko gisa” Maxima desberdinek unibertsalak izateko errespetatu behar duten elementua azaltzen da. “...eta ez soilik bitarteko gisa” zer esan nahi du? Esaterako, medikua ez dugu tratatzen soilik bitarteko moduan; alde batetik, bere ogibidea den heinean zerbitzu bat ematen digu eta, bestetik, pertsona moduan ikusten dugu, hau da, autonomiarako gaitasuna duen izaki moduan. Tresnak/bitartekoak onak dira erlatiboki; eta ohiko moraltasunean jendeak pentsatzen du euren burua ez dela gailua, izaki autonomoak direla uste dute eta, beraz, euren ekintzaren printzipioa izateko gai direnak. Natura

arrazional oro errespetatu behar da eta helburu bat balitz bezala harremanduko gara berarekin eta ez, soilik, tresna gisa.

Bat eta bigarren formulazioak berdina esaten dute. Maximen formulazioa unibertsalizagarria izateko, baldintzagabeki ona izango da izaki arrazional ororentzako. Inperatibo kategorikoak agintzen digu natura arrazionala zaintzea eta errespetatzea, eta baita helburu gisa tratatzea ez soilik bitarteko edo tresna gisa.

3. formulazioa. “Joka ezazu modu horretan zeinetan borondateak ikusi dezakeen aldi berean ekintzaren maximaren bidez bere buruari lege unibertsala ematen ari dela. (*Aldi berean*: lege unibertsala + maxima (natural arrazional baten determinazioa) zehatza onartzen duen). Nolakoa izango litzateke natura arrazional guztiek elkarrekin biziko balirateke eurek euren buruari ematen dioten legearen bidez. Formulazio honi esker ulertu dezakegu izaki arrazional finito eta partikular bakoitzak onartzen duen legea lege morala dela. Natura arrazionalak berezko helburua du norbera delako bere ekintzen kausa. Izaki arrazional baten borondatea determinatuta dago bere maxima ematearekin batera lege unibertsala ematen ariko balitz bezala.

Askatasunaren baldintzak.

- Mundu fenomenikoaren determinaziotik at kokatzea (a. negatiboa).
- Norbere buruari legea emateko autonomia izatea (a. positiboa).

Moralitatearen erresuma ideala: helburuen erresuma.

Bi modu daude bertan egoteko:

- A. Aginduen menpe: kideak. Borondate huts hutseginkorra edo mugatua dute, euren borondatea determinatuta egon daiteke heteronomoak diren aiharren bidez. Agintera erabiltzen da betebeharez jokatzeo lege moralari zor zaion errespetuagatik (errespetua da sentimendu a priori bakarra). Borondateak bere burua agindu moduan errespetatzen du.

Borondate huts hutseginkorra = absolutuki ona den borondatea. Autonomoki edo heteronomoki joka dezakegu honen, horregatik, ezin da analisiaren bidez inperatibo kategorikoa ondorioztatu, bi bide baitaude. Ezin dugu ondorioztatu ez dugula enpirikoki jokatuko, izan ere aukera dago heteronomiaren bidea hartzeko.

- B. Aginduen menpe egon gabe: subirauak. Borondate huts hutsezina. Bertan ez da agindua behar, beraz betebeharraren kontzeptuak ez dauka zentzurik. Bat-batekoa izateaz gain, nahitaezkoa da. Nahitaezkoa izan arren, Kanten aburuz hau askatasuna litzateke, hain zuzen askatasuna autonomia delako (hau da, norbere buruari legea ematea). Legea ez da agindua eta ez da betebeharra. Borondate huts hutsezina autonomoa da, eta autonomiaren printzipioa inperatibo kategorikoa da; analisiaren bidez ondorioztatzen dugu inperatibo kategorikoa, ez baitaun beste aukerarik, autonomoki jokatzea da bide bakarra.

Helburuen erresumako printzipio bateratzailea: lege moral unibertsala, hau da, inperatibo kategorikoa; kategorikoki agintzen duena egoera edozein izanda ere.

Sentimendu morala.

Gizakion zentzumen berezi bat, ez da arrazoimen hutsa eta beste zentzumenetatik bestelakoa da.

3.atala.

Kantek auresuposatu du badagoela lege morala, nola frogatu hori?

Laburbilduz: ona den borondate batek betebeharez jokatu behar du, borondate onaren maximak unibertsalizagarria izan behar du eta borondate hutsak bere buruari ematen dio legea, hau da, autonomia da, borondate hutsa autonomiarako gaitasuna baita.

Beraz, balizko elementua izan den auresuposizioa frogatu nahi du, hau da, inperatibo kategorikoa (lege morala) existitzen dela frogatu nahi du.

Askatasun positiboa eta moralitatea lotzen ditu Kantek. Anlisi baten medioz borondatearen askatasuna emantzat hartzen dugu, bestela ezin da moralitatearen inguruan hitz egin. Anlisiaren bidez hel gaitzke autonomiaren printzipioraino. Zein da analisiaren muga? Une oro emantzat ematea lege morala.

Frogatu nahi duena: apriorizkoa, unibertsala eta izaki arrazional ororentzako beharrezkoa den lege morala, hots, inperatibo kategorikoa existitzen dela.

Abiapuntua borondate erabat ona, hau da, borondate huts hutseginkorra da. Bertatik, borondate erabat onaren (inperatibo kategorikoaren) betebeharez jokatzeko beharra frogatzeko, hirugarren elementu bat suposatu behar da; horregatik ez da baliozkoa analisia hau suposatzeke, baizik eta sintesia. Anlisa ez da aukera, izan ere, gu borondate huts hutseginkorra gara eta jokatzeko bi modu daudenez, heteronomoki jokatzea aukera bat izan litateke. Horregatik, borondate huts hutseginkorren ez dago inplizituki inperatibo kategorikoaren beharrezkotasunez jokatzea. Suposatutako hirugarren elementu hori autonomia da. Bere asmoa autonomoak garela demostratzea da, hau enpirikoki ezin dezake egin eta analisiaren bidez ere ez, beraz, apriori eta sintesiaren bidez egin behar du.

Gizaki guztiek borondatea dutela, hau da, autonomoak garela, arrazoimen praktiko hutsa dugula demostratu nahi du.

Arrazoimen praktiko hutsa: kausalitate forma bat, gauzak determinatzeko gaitasuna lege enpirikoa ez den lege baten bidez.

ARRAZOIMEN PRAKTIKO HUTSA = BORONDATE HUTS HUTSEGINKORRA = AUTONOMIA = MORALTASUNA = ASKATASUNA

Noiz gara faktikoki autonomoak? Faktikoki autonomoak, eta askeak gara soilik baldin bagaude lege apriorien menpe, hau da, askatasunaren menpe. Argudiaketa hau kiribilkorra izan daiteke, horregatik ezin dugu analitikoki frogatu moralitatea autonomia terminoa erabiliz, izan ere gauza bera dira. Legea norberak bere buruari emateko gaitasuna frogatu behar da, hau da, apriorizkoa den proposizio sentetiko bat demostratzea da helburua unibertsala eta beharrezkoa dena (inperatibo kategorikoa). Frogatzeko erabiltzen duen argudioa arrazoimenaren dialektikarena da. Horretarako gizakia bi eratara aurkezten du:

-Kausa gisa, autonomoki jokatzen duen izaki gisa eta, beraz, askea eta bere buruari legea ematen diona. Horregatik, kausalitate segidatik at kokatzen du.

-Efektu gisa, hau da, naturaren legeen efektu gisa. Gizaki fenomenikoa kokatzen da bertan, hain zuzen ere, determinatuta dagoena.

Zientziaren esparrura jotzen du. Errealitate guztiak fenomeno bezala ikusteak suposatzen du fenomeno horiek beste fenomeno baten kausa direla. Posible da fenomenoak beste era subjektibo batean interpretatzea? Bai, errealitate hori beste era batean ulertuta.

Fenomenoak atzean noumenoa du, ikuspegi zientifikotik noumenoa ez da soilik posible, baizik eta beharrezkoa. Ez da soilik existitu daitekeena, baizik eta existitzen da. Zientziaren ikuspegitik beharrezkoa da noumenoa kontutan hartzea, soilik fenomenoak baleude hasierarik gabeko katea izango litzateke. Horregatik, beharrezkoa da kausarik gabeko kausa, hots, printzipio lehena, hain zuzen ere, noumenoa. Noumenoa autonomia da; eta beraz, autonomia existitzen da. Mundu adigarriak mundu sentigarria dakar; mundu adigarririk gabe, hots, kausarik gabeko kausarik gabe, ez dago mundu sentikorrik. Horrela, esan dezakegu, lege naturalak edo fenomenikoak noumenoaren menpe daudela. Gizakiaren izaera fenomenikoa partziala da eta izate baldintza bezala du gizakiaren izaera arrazionala. Noumenoa ez balitz ez legoke fenomenorik, mundu adigarria mundu fenomenikoaren oinarria da. Autonomia existitzen bada, borondate huts hutsezina existitzen da, horrela, moralagatik determinatuta jokatzea beharrezkoa da, hau da, nork bere buruari legea edo araua ematea beharrezkoa da. Moralitatea (=askatasuna) ez da izango sekula ezagutza zientifikoaren esparrua, baizik eta pentsagarria izango da.

Fenomenoa ezagutzen dugu subjektu jakin baten kategoriaren arabera; noumenikoa dena (hau da, arrazoimenaren ideiak: nia, Jainkoa eta mundua) ez dira ezagutzen, pentsatu egiten dira. Fenomenoa beste fenomeno batek kausatua da, hau da, baldintzatua, determinatua; noumenoa, aldiz, kausalitate formatik at dago.

(Moraltasunarengatik jokatzen dugu, ez moraltasunaren arabera)